

IKASTETXEA	Askatasuna B.H.I		
IZENBURUA	Got Milk?	MAILA	DBH 2. maila
IRAKASLEA	Maite García	IKASGAIA	Ingelesa

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## Got Milk?



“Hik, hezur indartsuak nahi al dituk?” (1. lerroa)

“ESNERIK AL DUK?” (leloa)

“Adamentium-a nire hezurrekin bateratuta dudan arren esneak eskaintzen duen kaltzioa beharrezkoa suertatzen zaidak nire hezurak indartsu mantendu eta metal honen guztiaren euskarri izateko”

IKASTETXEA	Askatasuna B.H.I		
IZENBURUA	Got Milk?	MAILA	DBH 2. maila
IRAKASLEA	Maite García	IKASGAIA	Ingelesa

**Egilea  
Iturria**

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	
IZENBURUA	Got Milk?
ARGITALETXEA/Webgunea	<a href="http://p6.p.pixnet.net/albums/userpics/6/8/663568/48b4c1aa2626d.jpg">http://p6.p.pixnet.net/albums/userpics/6/8/663568/48b4c1aa2626d.jpg</a>
URTEA	2009
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	Mistoa
MOTA	Iragarkia
ERABILERA	Pribatua

## **ESTRATEGIAK**

### **IRAKURRI BAINO LEHEN**

#### **1. Irakurri aurretiko hipotesiak egitea, izenburua, formatua, ilustrazioak... aintzat hartuz.**

- Ikasleei zein testu mota landuko dugun galdetuko diegu.
- Ikasleei galdetuko diegu iragarki hau non ager daitekeen: Testu hau aldizkarietan eta kalean aurki dezakegu.
- Iragarkia zeri buruzkoa izan daitekeen.
- Zer iragartzen duen eta zergatik.

#### **2. Era askotako aurretiko ezagutzak aktibatzea.**

Aurretiko ezagutzak aktibatu ditzaketen testuaren zenbait alderdiri erreparatzen laguntzea:

- Komentatu ezazu ikaskidearekin antzeko testuak ezagutzen dituzun eta gogoratzen duzun nabarmenena aipatu. Aipa iezaiozu baita ere zergatik gogoratzen duzun testu hori, nabarmenena (gogoko ego gustuko ez duzuna).
- Giltzatzat jotzen den hiztegia irakastea aldeztu aurretik. Horretarako, irakasleak behean ageri diren hitzak arbelean jarriko ditu eta denen artean zer esan nahi duten argituko dugu. Giltzatzak ondoko baldintzak beteko dituzte: zailak izatea, testuinguruan argiak ez izatea eta gainera, egitura-azterketa bat eginez antzeman ezin izatea.

Bub = mutilek haien artean hitz egiteko erabiltzen duten hitza (euskaraz, "hi"-rekin pareka genezake).

Got = have you got? (hau adierazteko modu motza)

Support = eutsi

IKASTETXEA	Askatasuna B.H.I		
IZENBURUA	Got Milk?	MAILA	DBH 2. maila
IRAKASLEA	Maite García	IKASGAIA	Ingelesa

Keep = mantendu

## IRAKURRI BITARTEAN

### 3. Nork bere buruari galderak egitea irakurtzen ari denaren gainean.

- Testua ingelesez dago. Nahiz eta hiztegia aldeztatik azaldu dudana, agian hiztegiaren inguruko galderak suertatu daitezke.
- Agian edukiari buruzko galderak ere suertatuko dira (zein da gizona hau? Zer du eskuan? Zergatik agertzen da hain serio? Berak ba al daki esne bibotea duela? Zergatik?)

### 4. Berriz irakurtzea.

- Komunean aipatu dugun guztia kontutan hartuz, ikasleei 2. irakurketa bat eskatuko diegu.

## IRAKURRI ONDOREN

### 5. Inferentziak egitea.

*Got Milk?* Testuan, bai idatzita dagoenetik, bai irudietatik, irakurleak ondorio batzuk aterako ditu:

- Hugh Jackman "lobezno"-k esnea edaten du indartsu egoteko.
- Mutilek (batez ere mutiei zuzenduriko iragarkia da, bub hitzaren erabilera) lobezno bezain indartsu izan nahi badute, esnea edan beharko dute.
- Lobeznori ez zaio batere inporta esne bibotea izan eta jendeak jakitea esnea edaten duela.
- Esnea ez da ume txikientzako soilik, "gizonezkoentzako" ere oso aproposa da.

### 6. Testu mota, genero eta berariazko egitura identifikatzeko estrategiak

Ikasleen hausnarketa pertsonala beharko genuke kasu honetan:

Publizitatearen asmoa zein da? Zer saldu nahi digute? Beraz, zein izango da testu honen asmoa? Zein da testuaren esanahi ezkutua edo bigarren zentzua?

Hemen publizitateko testu bat dugu: horregatik saldu nahi diguten produktu bat aurkitzea espero dugu. Publizitateko testu bat dela jakitea oso baliagarria suertatuko zaigu, testuaren asmoa zerbait saltzea dela ikusteko (kasu honetan esnea). Ingenioa ere espero dugu, eta testua literalki ez da irakurri behar. Faktore hau ikasleek aldeztatik badakite, publizitate testuetara jadanik ohituta daudelako. Ikasleek esanahi ezkuturen bat aurkitzea edo bigarren zentzu bat aurkitzea espero dute.

IKASTETXEA	Askatasuna B.H.I		
IZENBURUA	Got Milk?	MAILA	DBH 2. maila
IRAKASLEA	Maite García	IKASGAIA	Ingelesa